



**RASSF-AREN ALERTAK ETA**  
**JAKINARAZPENAK**  
**2007ko 3. LAUHILEKOA 2007**

**elika**


Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

2007ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 924 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

<b>Identifikatutako arriskuak</b>	<b>Zenbatekoak</b>
<b>Mikotoxinak / biotoxinak</b>	<b>% 26</b>
<b>Kutsadura kimikoa</b>	<b>% 18</b>
<b>Kutsadura biologikoa</b>	<b>% 21</b>
<b>Metal astunak</b>	<b>% 8</b>
<b>Hondakinak</b>	<b>% 10</b>
<b>Migrazioak</b>	<b>% 10</b>
<b>Kutsadura fisikoa</b>	<b>% 7</b>

### Identifikatutako arriskuak




Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 92an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **pikuak** kutsaduren % 22.5 eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% 98) pikua **Turkiatik** zetorren. Bigarren produktu garrantzitsua **kakahuetea** izan da, aflatoxinek eragindako kutsaduren %18, eta kasuen %27an jatorria **Txina** izan da.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 45 eragin ditu. Kasuen % 4,5 **Salmonella enteritidis** espezieak eragin ditu, eta **arrautzak** sarritan (% 75) hartu du parte. Arrautza horien jatorria Europa izan da kasu guztietan (% 100). Kasuen % 15 **Salmonella typhimurium** espezieak eragin ditu, eta **txerri-haragiak** kasuen % 46etan hartu du parte. Haragiaren jatorria **europarra** izan da kasu guztietan (% 100). Talde horretako protagonista **Salmonella sp.** izan da (kasuen % 80,5). Eta alerta gehien eragin dituztenak (% 46) **haragiak eta eratorriak** izan dira. Haragi gehiena Europakoa izan da (% 84).

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Koloragarriak eta Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak (kasuen % 44). Mota askotako produktuak dira inplikatuak, baina ez dago besteekin erkatuz gero, zenbateko handiagoa duen produktu aipagarririk. Inplikaturako produktuen etorki herrialdeak Asiakoak dira gehienbat. **Benzopirenoen** eta **Dioxinen** taldea izan da kutsadura kimikoen % 25aren errudun. Horietatik % 66 oliotako arrainek edo keztatuek sortzen dute eta oliotako arrain gehienek, hau da % 78k, europar jatorria dute.

<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	243	<b>Aflatoxinak</b>	225 (%92)	pikuak	50(%22,5)	Turkia	49 (%98)		
				kakahueteak	41 (% 18)	Txina	11 (%27)		
<b>Kutsadura biologikoa</b>	194	<b>Salmonella sp.</b>	87 (%45)						
				<i>S. enteritidis</i>	4 (%4,5)	arrautzak	3(%75)	Europa	4 (%100)
				<i>S. typhimurium</i>	13 (%15)	txerria	6 (%46)	Europa	6 (%100)
				<i>Salmonella sp.</i>	70 (%80,5)	Haragia eta eratorriak	32 (%46)	Europa	27 (%84)
<b>Kutsadura kimikoa</b>	165	<b>Koloragarriak eta Gehigarriak</b>	73 (%44)	Gozokiak, ozpinetakoak	Ez dago zenbateko handiagoa duen produktu aipagarririk				
				<b>Benzopirenoak/diox.</b>	41 (%25)	Elikagai-gehirriak			
				Arrain keztatua eta oliotan	27 (%66)	Europa	21 (%78)		
<b>Metal astunak</b>	75	<b>Mercurioa</b>	36 (%48)	Marrazoa, ezpata-arraina	30 (%83)	Espania	11 (%36)		

Kutsaturako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoa izan dira:



**Asiari** dagokionez, kutsatzaileen % **35 Txinakoak** dira, jarraian **Turkia** dugu: kasuen % **25**. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortzen duten herrialdeak **Espania eta Frantzia** dira, kasuen % **18 eta % 16** hurrenez hurren. Azkenik, **Afrikan**, ez dago gailentzen den herririk eta **Amerikaren** kasuan **AEB** dira nabarmen jakinarazpen gehien sortzen dutenak (% **52.5**)

### **AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA**

Aurreko lau hilekoarekin erkatuz gero, ondorengoa da azpimarratzekoa:

- Merkurioak egindako jakinarazpen kopuruaren gutxitzea. Bigarren lauhilekoan 64 jakinarazpen egin ziren eta oraingoan, berriz, 36.

Aipagarria da % 83ko kopurua ezpata-arrainak eta marrazoak eragindakoa dela.

- Aflatoxinak eragindako jakinarazpenen lehen produktua pikua izatea. Kasu gehienetan (% 98) pikua jatorria Turkia izan da. Pistatxoa, berriz, hirugarren lekura pasa da, azken boladan progresiboki jaisten ari da.
- Kutsadura kimikoari dagokionez, benzopirenoen eta dioxinen taldeak jarraitzea bigarren garrantzitsuena izaten. Eta kutsatutako produktuak arrainak dira, bai oliotan, bai keztatuak.